



2023/2024 denboraldia

## 2.ZIRKULARRA

### LIZENTZIEN TRAMITAZIOA

---

#### 1. JOKALARIEN ADINA

##### **GIZONEZKOAK:**

**Afizionatuak (A):** 2005eko urtarrilaren 1a baino lehenago jaiotakoak.

**Jubenilak (J):** 2005, 2006 eta 2007 urteetan jaiotakoak.

**Kadeteak (C):** 2008 eta 2009 urteetan jaiotakoak.

**Infantilak (I):** 2010 eta 2011 urteetan jaiotakoak.

**Infantil Txiki (IT):** 2011 urtean jaiotakoak.

**23 urtez azpikoak:** 2001 eko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotakoak.

##### **EMAKUMEZKOAK:**

**Afizionatuak (FA):** 2005eko urtarrilaren 1a baino lehenago jaiotakoak.

**Jubenilak (FJ):** 2005, 2006 eta 2007 urteetan jaiotakoak.

**Kadeteak (FC):** 2008 eta 2009 urteetan jaiotakoak.

**Infantilak (FI):** 2010 eta 2011 urteetan jaiotakoak.

**23 urtez azpikoak:** 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotakoak.



## **2. INFANTILEN LIZENTZIEN TRAMITAZIOA**

Emakumezko eta gizonezko infantilen lizentziak eskolarrak dira eta era honetara bideratuko dira:

### **Infantil Handi**

- Federazioaren egoitzan
- Azterketa medikua eta mutualitatean alta ematea
- Gehienez 2. urteko 4 lizentzia

### **Infantil Txiki (mutilak)**

- Federazioaren egoitzan
- Azterketa medikua eta mutualitatean alta ematea

### **Emakumezko infantil f-11**

- Federazioaren egoitzan
- Azterketa medikua eta mutualitatean alta ematea

### **Lehenengo Infantilak (neskak eta mutilak)**

- Eskualdeko ordezkartzetan
- Lehiaketaren izaera kontuan izanda, mutualitatea eta azterketa medikua aukerakoak dira, baina gomendagarria da biak egitea kirolaren jarduerak dituen berezko arriskuak saihesteko.

## **3. LEHENENGO LIZENTZIEN TRAMITAZIOA**

**A)** Lehenengo aldiz lizentzia egiten duen jokalaria nahitaez aurkeztu beharko ditu **NANaren fotokopia edo familia liburua** eta futboleko jardun dezakeela adierazten duen **azterketa medikua**.

**B)** Adin txikiko jokalariek (I, C, J, FJ eta FC lizentziak) gurasoen edo tutore legalaren baimena aurkeztu beharko dute.

## **4. INSKRIBATUTAKO JOKALARIEN GEHIENEZKO KOPURUA**

Lurreko mailako kategoriei ezarritako arauen arabera, klubek maila ezberdinetako talde bakoitzeko gehienez **25 jokalar**i inskribatu ahalko dituzte; **infantilen kasuan**, berriz, **20 jokalar**i. (Emakumezkoen infantil F-8an 16 jokalari)



## **5. NAN-AREN DERRIGORTASUNA**

**Ez dira bideratuko 14 urtetik gorako** jokalarien lizentziak **Nortasun Agiria** aurkeztu gabe.

## **6. SEXU-DELITURIK GABEKO ZIURTAGIRIA**

Talde teknikoaren (Entrenatzailea, 2. entrenatzailea, prestatzaile fisikoa, atezainen entrenatzailea, medikua, OLTa, osasun laguntzailea, material arduraduna, laguntzailea eta delegatua) **lizentziak tramitatu ahal izateko ezinbestekoa izango da Erregistro Nagusitik lortutako sexu-deliturik gabeko ziurtagiria** ekartzea. Ziurtagiriak eguneratuta egon behar du aurtengo denboraldiko uztailaren 1etik aurrera.

## **7. JOKALARI ATZERRITARRAK**

Federazio honek, euskal lizentzia guztien arduradun legala den Euskadiko Futbol Federakundearen akordioari jarraituz, erabaki du **ez dela jokalari atzerritarren lizentziarik tramitatuko, ez igorriko – Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain dituen eskola-lizentziak izan ezik – jokalariak FIFArekin baimena eduki arte**. Horretarako **“FIFako estatutu eta jokalarien transferentziarako araudia”** deituriko 19. artikuluan ezartzen diren baldintzak bete behar dira derrigorrez. Informazio gehiago behar izanez gero, eskuragai duzue gure [www.eff-fvf.org](http://www.eff-fvf.org) web orriko **Federazioa-Dokumentuak-Atzerritarrak atalean**. Jokalariak atzerrian futboleko jokatu baldin badu, **nazioarteko jokalari transferentzia** egin beharko litzateke.

Dokumentazio hori jasotakoan, erakunde eskudunei bidaliko zaie FIFAk onar dezan. Baimen hori izan ezean, lizentzia ezin izango da izapidetu. Baimena jaso ondoren, berehala jakinaraziko zaie klubei.

## **8. LIZENTZIEN BERRIKUNTZAK**

- **Nazional mailako kategoriak:** Euskadiko Futbol Federazioak automatikoki berritzen ditu nazional mailako jokalarien kirol lizentziak Espainiako Futbol Federazioaren jarraibideak kontuan izanda, azken honek ere gauza bera egiten baitu FENIX aplikazio informatikoan.

- **Autonomia eta lurralde mailako kategoriak:** lizentzien berrikuntzak **klubek kudeatuko dituzte soilik, federazioaren webguneko lizentzien aplikazio informatikoaren bidez**. Jokalaria berritzeko **nahitaez talde eta lizentzia bera izan beharko du eta ez du baliorik izango mutualitatearen buletinean sartuta eta ordainduta ez badago**. Epea abuztuaren 20an amaituko da.



**Euskadiko Futbol Federakundearen Araudi Orokorraren 49. artikulua dioen bezala, klubak banan-banan jakinarazi beharko die eragindako jokalariei datorren denboraldirako lizentzia berritzeko erabakia.**

## **9. TALDE TEKNIKOAREN LIZENTZIEN BERRIKUNTZAK**

**Euskadiko Futbol Federakundeak automatikoki berrituko ditu nazional, lurralde eta autonomia mailako talde teknikoaren lizentziak** (entrenatzailea, 2. entrenatzailea, prestatzaile fisikoa, atezainen entrenatzailea, medikuak, OLTak, osasun laguntzaileak, material arduradunak, laguntzaileak eta ordezkariak).

Uneko denboraldiari dagokion kontratua eta sexu-deliturik ez duela ziurtatzen duen dokumentua aurkeztu edo erantsi beharko dira.

## **10. LIZENTZIAK AURKEZTEKO EPEA**

**1ean hasten da** nazional, autonomi- eta lurralde-mailetako berrikuntza agiriak aurkezteko epea.

Gogorarazten dizuegu **lizentzien tramitazioa egiteko ordutegia ostiraleko 14:00ak arte** dela. Beraz, **ostiral arratsaldean ez da lizentzien tramitaziorik onartuko.**

## **11. AZTERKETA MEDIKUAK**

Azterketa medikuek **BI URTEKO** iraunaldia izango dute. Azterketa medikua iraungita duten jokalaria gorriz agertuko dira klub bakoitzaren federazioko intranetean. Ezin izango da lizentzia tramitatzen jarraitu, datuen tratamendurako baimenarekin batera aitorten hori alde aurretik egiaztatuta ez badago. **JOKALARIAREN** eta **TALDE TEKNIKOAREN** (entrenatzailea, 2. entrenatzailea, ordezkaria, material arduraduna, etab.) lizentzia guztiek nahitaez pasatu beharko dute azterketa medikua lizentzia tramitatu ahal izateko.



## **12. KONTRATUAK**

E, E2, PF, EP, D etab. **lizentziak tramitatzeko behar diren dokumentuak**, hau da, lizentzien tramitaziorako kontratua, NANA edota sexu-deliturik gabeko ziurtagiria **“Kirol Lizentziak” programaren bidez eskaneatu eta erantsi behar dira** federazioaren bulegora joan beharrik gabe.

## **13. SALDO ZORDUNEN LIKIDAZIOA**

**Saldo zorduna duten klubek aurreko denboraldiko zorraren %100a ordaindu beharko dute behin betiko lizentziak tramitatu aurretik.**

Ordaintzeko modu berria dela eta, ez da lizentziarik tramitatuko aurretik ordainduta ez baldin badago.


## **14. LIZENTZIEN SINADURA**

Gipuzkoako futboleko eragile guztiei eguneroko izapideak errazteko helburuarekin, jakinarazten da **2023ko urtarrilaren 9tik aurrera, lurralde eta autonomia kategorietan, mota guztietako lizentziak izapidetzeko modu bakarra sinadura digitala** izango dela, lizentzia-programaren bidez. Beraz, data horretatik aurrera ezin izango da lizentziarik izapidetu paperezko konpromiso agiria federazioan aurkeztuz.

Era berean, izapidetzeko momentuan **lizentziekin batera doazen dokumentu guztiak ere behar bezala eskaneatuta igo beharko dira** lizentzien programara, sexu-delituen dokumentu negatiboarekin egiten den bezala. Horrela, urtarrilaren 9tik Aurrera bulegoetan ezin izango da kontratu fisikoa aurkeztu.

**Donostia, 2023ko Uztailaren 5a**

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA  
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL

  
Iñigo Letamendi Artetxe  
Idazkari Nagusia-Secretario General